

**III. ATALA****EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA****Lan eta Enplegu Saila**

Ebazpena, 2022ko azaroaren 10ekoa, Bizkaiko Lan eta Enplegu Sailaren Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde-Ordezkariera, 2022ko irailaren 15eko Ebazpenaren bigarren hutsen zuzenketarena. Ebazpen horren bidez, 2023. urterako Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko festen egitaraua eta orokorra ezartzen zuen.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bizkaiko Laneko eta Gizarte Segurantzako ordezkariaren 2022ko irailaren 15eko Ebazpenaren bidez (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 184. zenbakian, 2022ko irailaren 27an, asteartean), Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko jaiegunen eta jaiegun orokorren 2023ko egutegia onartu zen.

Bigarrena: Bizkaiko Laneko eta Gizarte Segurantzako ordezkariaren 2022ko urriaren 7ko Ebazpenaren bidez, 2022ko irailaren 15eko Ebazpena aldatu zen, Derioko udalerriko tokiko jaiari dagokionez, izendapenean huts egin zelako (gaztelaniazko testuan), eta Izurtzako udalerriko tokiko jaiaren gaztelaniazko izena zuzendu zen.

Hirugarrena: 2022ko urriaren 26an, Balmasedako Udaleko alkateak idatzi bat bidali zuen udalerrri horretako 2023ko tokiko jaia zuzentzeko eskatuz, urriaren 23a izendatu baita (San Severino), eta ez urriaren 24a, 2022ko irailaren 15eko Ebazpenean agertzen den bezala.

Laugarrena: Lan Agintaritzak Bizkaiko Udalek aurkeztutako dokumentazio guztia hitzez hitz berrikusi du, eta Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako ordezkariaren 2022ko irailaren 15eko Ebazpenaren edukiarekin alderatu da. Adierazitako dokumentazioa aztertu ondoren, hainbat akats antzeman dira, eta ebazpen honen bidez zuzendu egin dira.

Zuzenbideko oinarriak

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, «administrazio publikoek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Horren ondorioz, hau,

ERABAKITZEN DUT:

Lehenengoa: Bizkaiko Laneko eta Gizarte Segurantzako ordezkariaren 2022ko irailaren 15eko Ebazpena bigarrenez Aldatzea, honela idatzita gera dadin:

- 1) Balmasedako udalerriko tokiko jaiegun gisa, 2023rako, urriaren 23a ezartzen da (San Severino), eta 2022ko irailaren 15eko Ebazpenaren testua (gaztelaniaz eta euskaraz) zuzentzen da. «Balmaseda, Urriaren 24 (San Severino)» dioen lekuan, «Urriaren 23a (San Severino)» esan behar du.
- 2) 2023rako, Busturiako udalerriko tokiko jaiegun gisa, uztailearen 10a ezartzen da (San Kristobal), 2022ko irailaren 15eko Ebazpenaren testua zuzenduz (gaztelaniaz eta euskaraz). «Busturia, ekainaren 10a (San Kristobal)» dioen lekuan, «Busturia, Uztailearen 10a (San Kristobal)» esan behar du.
- 3) Larrabetzuko herriko jaiaren euskarazko testua zuzentzea; «Maiatzaren 15a (San Isidro eguna)» dioen tokian, «Maiatzaren 15a (San Isidro eguna)» esan behar du.
- 4) Orozkoko udalerriko herriko festan aipatzen den jaiegunari buruzko aipamena kentzea (gaztelaniazko eta euskarazko testuan): «Irailaren 2a (San Antolin)» dioen lekuan «Irailaren 2a» esan behar du.



- 5) Euskarazko testuan Ugao-Miraballes udalerriko jaieguna zuzentzea: «Irailaren 8a (Nuestra Señora de la Virgen de Udiarraga)» dioen lekuan, «Irailaren 8a (Udiarragako Ama Birjinaren eguna)» esan behar du.
- 6) Tokiko jaia Zamudioko udalerrira erdarazko testuan gehitzea: Donde dice «Maiatzaren 29a» dioen lekuan, «Maiatzaren 29a (lunes de Pentecostés)» esan behar du.
- 7) Zaratamoko udalerriko herriko festan aipatzen den jai-egunari buruzko aipamena kentzea (gaztelaniazko eta euskarazko testuan): «Abuztuaren 10a (San Lorenzo eguna)» dioen lekuan, «Abuztuaren 10a» esan behar du.

Bigarrena: Bizkaiko Laneko eta Gizarte Segurantzako ordezkariaren 2022ko irailaren 15eko Ebazpenaren gainerako artikuluei eusten zaie. Ebazpen horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko jaiegunen eta jaiegun orokorren 2023ko egutegia onartzen da. Ebazpen hori aurtengo urriaren 7ko Ebazpenaren bidez aldatu zen.

Bilbon, 2022ko azaroaren 10ean.—Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde-Ordezkaría, Verónica Fernández Fernández